

ARTEA, IRUDIAK, DEBOZIOA SAN JOAN GURUTZEKOREN IKUSPEGITIK

Udaldi giroan bidaiak egiteko, hiriak, santutegiak, monumentu erlijiosoak bisitatzeko eta haien ederraz gozatzeko abagunea izan ohi dugu. Gure inguruan, zoritxarrez, segurtasunagatik edo lapurren beldurragatik, ondare erlijioso asko, kanpo aldetik izan ezik, ez dira egon ohi bisitatzeko eran. Hala ere, Aralarko Jaun Done Mikelen santutegia, Estibalizko Andre Mariarena, Elorrioko Sortzez Garbiaren basilika kanpo eta barru ikusi ahal izan ditugu. Erromanikoaren aire sendo eta xumea, goranahi gabea, baina eder-ederra, aintzinaren arnasaz ageri dena, bildutasun eta otoitzera eragiten duena batetik; eta gotikoaren molde lerdin, harro eta zuta bestetik. Arkitektura gotikoarekin batera erretaula barrokoak ere ugari dira gurean, loreen, barraskiloen eta kearen forma espiralak imitatzen dituztenak.

Bizi berri dugun esperientzia honetatik, hurbil gaitezen san Joan Gurutzekorengana. Hark arterako berezko joera eta sentiberatasuna zituen; begien bistako ederra, Kreatzaileak bere begiradaz soilik utzitako lorratza, miresten zuen bereziki. Egia esan, Kreatzailearen bila zebilen, begien bistakoa ez den edereetan ederrena denaren, bila:

*Maitearen atzetik
mendi-ibarretan zehar naiz joango;
ez bilduko lozerik,
ez pizti izua izango,
besi eta mugak ditut igaroko.*

Kreaturei galdetu zien eta haiek erantzun:

*Grazia ugari isuriz
ziboan basartetik traza arinez,
begiak hara itzuliz,
soilik bere antz finez
bere ederrez jantzi zituen, zinez.*

Ezaguna da, Calvarioko (Jaén) eta Los Mártiresko (Granada) komentuetan priore zela, fraideak kanpora, basora, eramaten zituela sarri, han otoitzean, kreazioa eta Kreatzailea miresten eta goستن igarotzeko. Baina ezaguna da baita, barruko debozioak eta arte-senak hartara eraginik, egurrean nahiz paperean Kristoren irudiak lantzen zituela, eta mojei eta pertsona espiritualei oparitzen zizkiela; badakigu, txoriaren goitiko begirada imitatzen duen diseinuaz marraztu zuela kritikak eta arte kontuan adituek oso eder eta originaltzat jotzen Kristo hura, geroago Salvador Dalík pintatuko zuen Kristo ospetsuaren aurrekari eta inspirazio-iturri izango zena.

A. Krisogonok idatziriko haren biografian agertzen da pasarte hunkigarri bat, bere anaia nagusia Frantziskorekin Segoviako komentuko baratzean. Frantziskoren testigantzaz idatzi zuen A. Krisogonok pasarte hori. Neure erara euskarara itzulirik adieraziko dut.

Gau batean –beharbada 1591ko udaberrian, frai Joanek Segovian eta mundu honetan igaro zuen azkenekoan– afaldu ondoren, eskutik hartu bere anaia Frantzisko eta baratzeraren eraman zuen. Udaberriko gauak Segoviako komentuko baratzean zoragarriak izaten dira: egurats garbia, bakardadeko bakea uraren hots urrunarekin, basaloreen usainarekin eta ortzi zabal sakonarekin... Bi anaiak bakarrik daudenean, Joan barruan gorderik izan duen sekretu bat Frantziskori kontatzera doakio. Era xumean hasten zaio hitz egiten:

“Gure Jaunarekin gertatu zitzaidan gauza bat kontatu nahi dizut. Komentuan gurutze bat geneukan, eta ni haren aurrean nengoela, elizan hobeki legokeela etorri zitzaidan burura; eta erlijiosoek ez ezik kanpokoek ere gurtu zezaten, iruditu zitzaiz-

dana egin nuen. Elizan ahal nuenik egokien jarririk izan nuen, eta behin haren aurrean otoitzean ari nintzela, esan zidan: ‘Frai Joan, eska iezadazu nahi duzuna, eta nik emango dizut, egin didazun mesede honengatik’. Nik erantzun nion: ‘Jauna, nik zugatik sufritzeko nahigabeak eman diezazkidazula nahi dut, eta mespretxatua eta gutxietsia izan nadila’. Hau eskatu nion Gure Jaunari, eta Jaunak aldatu egin du, merezi ez dudala ohore handia egiten didatelako saminez bainago”.

Goian esan dugunez, hau, san Joan Gurutzeko hil ondoren, Frantzisko haren anaia zaharrenak kontatua da, baina A. Krisogonok berak ere badio ez zela gurutzea izan. Koadro bat izan zela, oraindik irauten duena. Larruan pintaturiko Jaunaren bustoa da, gurutzea sorbaldan daramala. Haren aurpegi mindua nabari da arantzazko koroaz. Hunkigarria da haren tristurazko begitartea, mindua eta era berean gozoa, ezpainak erdi irekiak, hitz haiek, frai Joanek Segoviako karmeldarren elizan entzun zituenak, esan berri balitu bezala.

1591n san Joan Gurutzeko bere bizitzako azken etapan zen. 49 urte zituen. Ordurako aspaldi hilak ziren beraren aurreko anaia Luis eta gurasoak Gonzalo Yepes eta Katalina Álvarez; anaia nagusia, Frantzisko, bizi zen alargun; zazpi seme-alaba izan zituzten berak eta Ana Izquierdo emazteak. Hau hila zen, baita seme-alabetatik sei ere. Bakarra bizi zen; moja zegoen Olmedon. Bi anaiek bakarrik sumatzen zuten beren burua.

Frantzisko Segoviara etorri zen, beraren anaia handik laster joango zela esan baitzioten. Eta egia zen. Hain zuzen ere, Joan Gurutzeko Mexikora joateko izendaturik zegoen. Azkenik, ez zen bete Mexikora joate hori, Joan gaixotasunak larriki jota inorako ez zela geratu ondoren, Ubedan hil baitzen.

Pasarte hau sartu nahi izan dut, hemen, san Joan Gurutzekoren ezerezteak, biluzteak eta ukatzeak direla-eta, haren izaera latza, sentiberatasun gabea dela inork uste izan ez dezan, izatez guztiz alderantziz baita. Bihotz gozo eta maitasunez bete zuten; sentiberatasun eta gizatasun handia erakusten

zuen etxekoekiko nahiz kanpokoekiko harremanetan. Horretaz lekukotasun ugari dago goian aipaturiko A. Krisogonok idatzi zuen haren biografian.

Frai Joanek, diogunez, arterako, ederra dastatzeko, berariazko dohainak zituen, baina haren bihotza ederretan ederrenaren bila ari zen, eta behin bidearen gune gorenetera iritsiz, ez zuen bitartekorik nahi, hauek bilatzen zuen haren egarria biziagotzen eta ikusezina zenaren irrikaz bihotza gehiago mintzen eta samintzen ziotelako. Hau dio berak *Kantu Espiritualaren* seigarren kantari egiten dion oharpenean:

Baina, horretaz guztiaz gainera, orain kontenplazioaren esanahi eta bihotz-eraginari dagokion eran hitz eginez, jakin beharrekoa da kontenplazio bizi eta creaturen ezagutzan, arimak haietan Jainkoak emaniko grazia, bertute eta edertasun bain ugari antzematen dituela, non guztiak edertasun miragarriak eta bertute naturalaz jantziak iruditzen baitzaizkio, Jainkoaren irudiaren naturaz gaindiko edertaun mugagabetik datorkiona eta ematen zaiona; haren begiratzeak lurra eta zeruak ederrez eta alaitasunez janzten baititu; era berean, bere eskua zabalduz, Dabidek dioenez (Sal 144, 16), bizidun oro onginahiz asetzen du. Eta, beraz, arima, creaturetan antzemaiten bere Maitearen aztarnaz maiteminez zauriturik, eta ikusirik edertasun honek eragin zuen ezin ikusizko edertasun bura ikusteko irrikaz, honela dio ondorengo kantan:

*Oi, nork sendatuko nau ni!
Halako batean, bada, amore eman;
ez bidali neroni
mezulari egin dezan
inor, ez baitakite zer nabi dedan.*

Kreaturek, arimari, beren izatean Maitearen edertasun eta gorentasunaren aztarnak erakutsiz, haren ezaugarriak eman zizkiotenez gero, gebitu egin zitzaion maitemina eta, beraz, areagotu bura berarekin ez izatearen samina; izan ere, arimak zenbat eta hobeki ezagutu Jainkoa, biziagotu egiten zaio

haren egarria eta ikusteko bihotz-mina. Eta, bere samina sendatzekorik ez dela obaturik bere Maitearen presentzia eta hura ikustea baizik, bestelako erremedioez mesfidati, kanta hone-tan eskatzen dio eskain diezaiola bere presentzia eta haren ja-betza, esanez, aurrerantzean ez dezala poztu bere aztarna baizik ez diren albiste eta komunikazioez soilik, horiek desira eta samina biziagotzeko bestetarako ez baitira.

Baina jo dezagun izenburuan jarri dugunaren harira: artea, irudi erlijiosoak, debozioa. Helburua lortzeko, hau da, Jainkoarekin bat egiteko, harenganako bidean laguntzeko, ar-teaz, irudiez... nola baliatu eta nola ez, azaltzen digu:

Irudien erabilpena Elizak bi helburu nagusitarako agindu zuen, hau da: santu eta santak haietan gurtzeko, eta haien bi-dez bihotza mugitu eta santuen deboziora pizteko; eta horretar-ako balio dutenean, onuragarriak dira eta beharrezkoa haien erabilera. Eta, horregatik, egokien eta bizikien moldatuak eta borondatea deboziora gebien mugitzen dutenak hautatu behar dira, begiak horretan gebiago jarritz, egituraren balio, bitxita-sun eta apaingarrietan baino. Izan ere, diodanez, badira zenbait pertsona, irudiaren bitxitasun eta balioari gebiago be-girutzen diotenak, esan nabi duenari baino; eta barruko debo-zioa, espiritualki ezin ikusia den santuagana bideratu behar dutena, berebala irudia abazturik, motibo izateko soilik balio duena, apaingarri eta kanpoko bitxitasunerako erabiltzen du-te, zentzumenaren atsegin eta gozotasunerako, borondatearen maitasun eta atsegina hartan gera dadin. Horrek guttiz ozto-patzen du egiazko espiritua, gauza banako guztietan afektua ezereztea eskatzen baitu. (Karmel Mendira Igoera, 3. lib., 35-3)

Hau hobeki zehaztuko du kapitulu bereko 5. zenbakian, egiazko debozioa duenak irudi erlijiosoak nola erabiltzen di-tuen azalduz:

Egiazko debozioa duen pertsonak ikusten ez denaren gain jartzen du batez ere debozioa, eta ez du irudi askorik behar eta erabili ere gutxi erabiltzen ditu, gebiago Jainkoarekin bat

datozenak gizakiarekin bat datozenak baino, haiei eta bere buruari beste munduko jantzia eta izaera ezarriz, eta ez mundu honetakoa; izan ere, mundu honetako irudiak ez bakarrik ez dio gogoa erakartzen, hartaz gogoratu ere ez da egiten haren bidez, begien aurrean duenak ez baitu haren airerik. Erabiltzen dituen irudietan ere bihotza ez du itsatsirik, eta kentzen badizkiote, ez du nabigabe handirik hartzen, irudi bizia baita bere baitan bilatzen duena, eta hori Jesus gurutziltzatua da; hortaz, alderantziz, poz hartzen du dena kentzen diotenean eta dena falta zaionean.

Jainkoagana iristeko motibo eta bitartekoak kentzen badizkiote ere, lasai geratzen da. Izan ere, arimaren perfekzio handiagokoa da, motibo hauek gabe lasai eta pozik egotea, hauek dituela berauen gutiziaz eta atxikimenduaz egotea baino. Debozio handiagorako arimari laguntzen dioten irudi haiek eduki nahi izatea ona bada ere (eta horretarako egokienak direnak hautatu behar dira), ez da ona jabetzaz haiei hain atxiki-rik egotea, kenduz gero nabigabez geratzeko heinean.

San Joan Gurutzekoren doktrina hau, itxura batean, haren eder-senarekin, haren arterako joera eta dohainekin kontraesanean dagoela ematen du; baina, behin eta berriro esan dugunez, ederretan ederrenaren bila ari zelako da, eta hori lortzearren, denari uko egiteko prest genuen; *harribitxi bila dabilen tratularia-ekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du* (Mt 13, 46). Jakin-mina sortzen zaigu, hemengo arteari buru eta bihotz eman balio, zer izan zitekeen Joan Yepes. Beharbada, pintore edo eskultore gorenetakoa. Baina zail egiten zaigu Joan egiaz izan zenaz eta egin zuen ibilbideaz bestelakoan irudikatzea. Hortxe, jainkozko bidean, eman zuen hark eman zezakeenik hoberena, hor jo zuela goia esan dezakegu, hor egin ziola Elizari ez ezik gizarteari ere ekarpenik handiena. Jainkozko poeta goimailakoa izan zen; teologo eta maisu espiritual handienetakoa.

Luis Baraiazarra Txertudi